

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

2143

EBAZPENA, 2024ko apirilaren 24koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa finantzatzeko laguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2024ko apirilaren 23ko bile-ran hartutako erabakiaren bidez, administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa finantzatzeko laguntzen deialdia onartu du, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. Maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartutako Lanbideren Estatutuen 10.2 artikuluko o) letran xedatutakoaren arabera, organismo autonomo horren zuzendari nagusiari dagokio deialdi hori argitaratzea.

Azaldutakoa dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatu-tako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa finantzatzeko laguntzen deialdia, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2024ko apirilaren 23ko batzarrean hartutako erabakiaren bidez onetsitakoa. Ebazpen honen eranskin gisa jaso da erabaki hori.

Bigarrena.– Azaltzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak laguntza-deial-dia onartzeko hartu duen erabakiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituela ondorioak.

Hirugarrena.– Ohartaraztea deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Admi-nistrazio Kontseiluaren Erabakiaren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaiola organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argi-taratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 24a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
FRANCISCO PEDRAZA MORENO.

ERANSKINA

LAGUNTZEN DEIALDIA, EUROPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION EU FUNTSAK FINANTZATUTAKO SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN «ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN LEHEN LANBIDE-ESPERIENTZIA IZATEKO PROGRAMA» FINANTZATZEKO.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2021eko abenduaren 13ko Ebazpenaren bidez, 2021eko abenduaren 31ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (262. zk.) argitaratu zen administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa finantzatzeko laguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGeneration EU funtsak finantzatzeko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. Deialdi hori 2021eko abenduaren 13an onartu zuen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, eta eskaerak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31ra arte dago.

Deialdi horretan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 7.518.326 eurokoa izan zen, eta zenbateko hori Estatuak transferitu zuen, deialdia gauzatzeko izaera finalistarekin, Europar Batasunaren NextGeneration EU funtsak finantzatzeko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren integratutako proiektu gisa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduak ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez. Abuztuaren 19ko TES/897/2021 Aginduaren bidez –2021eko abuztuaren 24ko BOEn argitaratu zen–, lurralde mailan banatzen dira Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatzeko kredituak 2021eko ekitaldi ekonomikorako, lan arloko eskumenak dauzkaten autonomia-erkidegoek kudea ditzaten; aipatu kredituak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko 19. eta 23. osagaien esparruan inbertsio-proiektuak egiteko dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dio zenbateko hori, administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programako laguntzak finantzatzeko.

Deialdiaren 2. artikulua ezartzen duenez, eman beharreko laguntzen bolumen osoak ez du gaintutako aipatutako zenbateko hori edo zenbateko hori handitzetik ateratzen dena, aurrekontu-aldaketarik onartzen bada indarreko legeekin bat, bereziki 2022an edo 2023an Euskal Autonomia Erkidegoari Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruko funts berriak transferitzen bazaizkio xede bererako eta laguntza horiek finantzatzeari lotutako ordainketa-kreditu berriak sortzen badituzte.

Deialdiaren 5. artikuluko 1. apartatuak ezartzen du soldata-kostuak lagundu daitezkeela diruz, Gizarte Segurantzari kontzeptu guztiengatik egindako kotizazioa barne, bai eta norbera babes-teko ekipamenduen kostuak ere deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituztela kontratatutako gazteentzat. Gainera, artikuluko horretako 2. apartatuak ezartzen du eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa moduluen araubidearen bidez egingo dela, eta halakotzat ezartzen dira Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak egindako txosten teknikoan zehaztutako parte-hartzaile bakoitzeko kostu unitarioak osatzen dituzten zenbatekoak. Zenbateko horiek urriaren 24ko TES/1152/2021 Aginduaren bidez ezarritako programa honen babesean dirulaguntzak emateko oinarri arautzailetan datoz jasota. Hala ere, agindu horrek ez du modulua eguneratzea aurreikusten, horien ondorioz diruz lagundu daitekeen zenbatekoa ez baita aurrekontu ekitaldi batera baino gehiagora proiektatzen, Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorraren 77.1 artikulua ezartzen duen bezala. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren 2023ko abuztuaren 14ko Ebazpenak eguneratu eta kuantifikatu egiten du administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa finantzatzeko dirulaguntzak emateko eta justifikatzeko moduluen araubidea, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak egindako txosten teknikoan oinarrituta, Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorraren 77.1 artikuluan araututakoarekin bat etorritik.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2023ko irailaren 20ko Ebazpenaren bidez argitara eman zen 2023ko irailaren 26ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (184. zk.) administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa finantzatzeko laguntzen deialdiari esleitutako baliabide ekonomikoak handitu egin zirela, Europar Batasunaren Next-Generation funtsak finantzatzeko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, maiatzaren 17ko TES/440/2022 Aginduan xedatutakoari jarraikiz (2022ko maiatzaren 19ko BOEn argitaratua). Agindu horren bidez, 2022ko ekitaldiko kredituen lurralde-banaketa egiten da, zeinak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 19. eta 23. osagaien esparruan inbertsio-proiektuak gauzatzera bideratuta baitaude; zehazki, 6.244.148 euro esleitzen dizkio Euskal Autonomia Erkidegoari, administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programako laguntzak finantzatzeko.

Ekainaren 14ko TES/629/2023 Aginduaren bidez –2023ko ekainaren 17ko BOEn argitaratu zen, eta huts zuzenketak, berriz, 2023ko uztailaren 29ko BOEn–, lurralde mailan banatzen dira Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatzeko kredituak 2023ko ekitaldi ekonomikorako, lan arloko eskumenak dauzkaten autonomia-erkidegoek kudea ditzaten; aipatu kredituak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko 19. «Konpetentzia Digitalen Plan Nazionala» eta 23. «Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak» osagaien esparruan inbertsio-proiektuak egiteko dira, eta 2.818.622 euro esleitzen dizkio Euskal Autonomia Erkidegoari 2023ko ekitaldirako, administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programako laguntzak finantzatzeko. Zenbateko hori dagoeneko transferituta dago helburu horretarako erabiltzeko.

Espainiako Suspertze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onesteari buruzko Kontseiluaren 2021eko uztailaren 13ko (EB) (ST 10150/2021: ST 10150/2021 ADD 1 REV1) Exekuzio Erabakiak, zeina Kontseiluaren 2023ko urriaren 17ko Exekuzio Erabakiaren bidez aldatu baitzen, ezartzen du 1 Inbertsioaren (C23.I1) –Gazteen Enplegua– inplementazioa, gehienez ere, 2025eko abenduaren 31rako egongo dela amaituta.

Neurria ezin izan da egin hasierako deialdian aurreikusitako egutegiaren barruan, profil jakin batzuk betetzeko hautagaiak aurkitzea zaila izan delako. Horregatik, beste deialdi bat egin behar da, planean zehaztutako mugarrak eta helburuak betetzeko exekuzio-egutegia zabaltzeko.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak proposatuta, organismo autonomo honetako Administrazio Kontseiluak, 2024ko apirilaren 23ko bileran, administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa finantzatzeko laguntzen deialdia onetsi du, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

1. artikulua.– Laguntza-deialdiaren xedea.

Deialdi honek administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen ditu. Ekintza hori Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 23. osagaiaren barruan dago («Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak»); zehazki, 1 inbertsioaren barruan («Gazteen enplegua»); eta CID 34 helburuari laguntzen dio, eta horrekin erlazionatutako jomugak betetzen lagunduko du, Europako eta Estatuko suspertze- eta erresilientzia-mekanismoa eta Suspertze Plana erregulatzen dituen araudia-ekin bat etorritz.

Deialdi honen xedea da urriaren 24ko TES/1152/2021 Aginduaren bidez araututako «Administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa» delakoaren barruko dirulaguntzak ematea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko instituzionaleko –erkidegokoa eta tokikoa– administra-

zio publikoei eta entitateei, gazte langabetuak kontrata ditzaten, gazte horiei enpleguaren arloko lehen esperientzia eta konpetentzia eta abilezia sozial eta profesionalak eskaintzeko, administrazio horiek ematen dituzten zerbitzuen barruan. Laguntza hauek Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan kokatzen dira.

Oinarri hauen arabera emandako dirulaguntzak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatuko dira; mekanismo hori (EB) 2021/241 Erregelamenduak ezarria da ([EB] 2021/241 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021eko otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena). Europako funtsekin finantza daitezkeen dirulaguntza horiek izapidetzeko eta emateko, 36/2020 Errege Lege Dekretuan aurreikusitakoa aplikatuko da (36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio Publikoa modernizatzeke eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikartzeko presako neurriak onartzen dituena), alde batera utzi gabe aplikatzekoa den gainerako araudia.

2. artikulua.– Finantzaketa.

1.– Deialdi honetan araututako laguntzak emateko, baliabide ekonomikoen zenbatekoa 5.510.467,88 euro da, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren 2024 ordainketa-kredituaren kontura, eta lotura dute Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekin. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak ezarri zuen aipatutako mekanismoa.

Emango diren laguntzen zenbateko osoa ez da aipatutako zenbatekoa baino handiagoa izango, ez eta kopuru hori gehitzearen ondoriozkoa baino handiagoa ere, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programaren babesean emandako dirulaguntzak itzuli edo borondatez itzulita funtsak lortzen badira. Kasu horretan dago-kion publizitatea egingo da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta.

2.– Etiketatzeko klimatikoari eta digitalari lotutako betebeharrak betetzeko, baliabide ekonomikoak hiru lerrotan banatuko dira:

a) % 20, 1.102.093,58 euro, ingurumena zaintzen eta leheneratzen laguntzen duten enplegu berdeen ildorako. Jarduketa-eremuak hauek dira, besteak beste: ekosistemak leheneratzera eta abere-ustiapenerako eredu ekologikoak eta jasangarriagoak ezartzera bideratutako nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza; energiaren eta lehengaien kontsumoaren efizientzia areagotzeko jarduerak; berotegi-efektuko gasen isuriak murriztea; hondakinak eta kutsadura murriztea; ekosistemak babestea eta leheneratzea, eta ingurumenarentzat onuragarriak diren ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko prozesuak.

b) % 20, 1.102.093,58 euro, konpetentzia digitalen arloko lanpostuen ildorako, Europako Kontseiluak ezarritako herritarrentzako konpetentzia digitalen Europako Esparruarekin (DIGCOMP) bat etorrira.

c) % 60, 3.306.280,72 euro, enplegu orokorraren ildorako.

a) eta b) ildoetarako ezarritako baliabide ekonomikoak agortzen badira, c) ildoetarako aurrez ikusitako kredituaren kargura eman ahal izango dira enplegu berdeetarako eta konpetentzia digitalen arloko enpleguetarako laguntzak.

3.– Laguntza hauek ez dira estatu-laguntza bat EBFT Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluetan ezarritakoaren arabera, laguntzak emateko ez baitu lehia faltsutzen, ez eta lehia faltsutzeko mehatxurik ekartzen ere, zenbait enpresa edo

ekoizpenen alde eginez, dirulaguntzen entitate onuradunak erkidegoko eta tokiko sektore publiko instituzionaleko administrazio publikoak eta organismoak eta entitateak baitira.

3. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan araututako dirulaguntzak bateragarriak dira helburu bererako beste administrazio edo entitate publiko edo pribatu batzuek emandako dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin. Edonola ere, argi identifikatuta geratu beharko da gastuen trazabilitatea, eta laguntzen eta dirulaguntzen batura ezin izango da izan diruz lagundutako gastuen kostua baino handiagoa.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 9. artikulua arabera, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak (SEM) finantzatutako inbertsio-proiektuek Batasunaren beste programa eta tresna batzuetatik jaso dezakete laguntza, baldin eta laguntza horrek ez badu asetzen programa honen dirulaguntzak dagoeneko finantzatzen duen kostu bera.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Arau orokor gisa, SEMak gastu hauek baino ez ditu finantzatuko: egiturazko aldaketa dakarten, erresilientzia ekonomiko eta sozialean, epe luzeko lehiakortasunean, jasagarritasunean eta digitalizazioan eta enpleguan eragin iraunkorra duten eta behin eta berriro egiten ez diren gastuak.

2.– Deialdi honetan araututako laguntzek abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 37. artikulua arabera finantzatuko dituzte jarduketak, SEEPen arau-esparruaren arabera hautatzeko modukoak diren jarduketak finantzatzeko.

3.– Ez dira diruz lagunduko Europar Batasunak klimaren eta ingurumenaren arloan dituen arauak eta lehentasunak eta «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa («do no significant harm – DNSH» printzipioa) erabat betetzen ez dituzten proiektuak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko ekainaren 18ko (EB) 2020/852 Erregelamenduaren 17. artikuluari jarraituz. Entitate onuradunek bermatu behar dute betetzen direla.

4.– Gazteak kontratatzeagatik, soldata-kostuek jaso ahal izango dute dirulaguntza, Gizarte Segurantzari dagozkion kontzeptu guztien ondoriozko kotizazioa eta norbera babesteko ekipamenduenak (NBE) barne.

Soldata-kostuei dagokienez, kontratatutako pertsonaren ordainsaria ezin izango da izan urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 11.1 artikuluko e) letran aurreikusitako zenbatekoa baino txikiagoa, ezta une bakoitzean indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoa ere.

Bestalde, hau da norbera babesteko ekipamenduengatik (NBE) diruz lagun daitezkeen gastuaren gehieneko zenbatekoa urtean: 392 euro, 9-5 kotizazio-taldeetan kontratatutako pertsonentzat, eta 588 euro, 4-1 kotizazio-taldeetan kontratatutako pertsonentzat.

5. artikulua.– Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Aurreko artikuluan aipatutako gastu kontzeptu guztiengatik emango den dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, kontuan hartuko dira aurkeztutako proiektuan jasotako aurreikuspenak: zenbat pertsona kontratatuko diren, horietako bakoitza zenbat hilabetetarako kontratatuko den, eta Gizarte Segurantzako kotizazio taldearen arabera aplikatu beharreko modulu hau:

– A modulu - 9. kotizazio-taldetik 5.era: 1.936,67 euro, kontratatutako pertsona eta kontratazio-hilabete bakoitzeko.

– B modulua - 4. kotizazio-taldetik 1.era: 2.905,00 euro, kontratatutako pertsona eta kontratazio-hilabete bakoitzeko.

6. artikulua.– Dirulaguntzaren onuradunak.

1.– Deialdi honetan jasotako laguntzen onuradun izan daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, foru-aldundiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko mankomunitateak, kua-drillak eta udalerriak, baita aurrekoen mendeko edo haiei lotutako EAEko eta tokiko sektore publiko instituzionaleko organismoak eta entitateak ere, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 82. artikuluan ezarritako Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Entitateen Inbentarioan inskribatuta badaude.

2.– Erakunde onuradunek eskakizun hauek bete behar dituzte:

a) Kondenaturik ez egotea delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

b) Kondenatua edo zehatua ez izatea epai edo administrazio-ebazpen irmo batez, dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galduz, edo, hala izan bada, igarota edukitzea kondena- edo zehapen-epea.

c) Ez edukitzea eskatuta borondatezko konkurtso-deklaraziorik, ez egotea edozein prozeduratan kaudimengabetzat deklaraturik, ez egotea konkurtsoan deklaraturik edo, hala egonda ere, hitzarmen batek eraginkortasuna lortu izatea, ez egotea esku-hartze judizialaren mende, eta ez izatea desgaituntzarik Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera edo, hala izanda ere, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaituntza-aldia amaituta edukitzea.

d) Ez izatea administrazioarekin egindako kontratu baten suntsiarazpen irmoaren eragile deklaraturik.

e) Merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak ez egotea honako lege hauek jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea. Edo ez direla Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguak, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

f) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

g) Ez edukitzea dirulaguntzen arloko ordaindu gabeko itzulketa-betebeharrak, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (2023ko otsailaren 17ko EHAA), eta konpromisoa hartzea egoera horretan gertatzen den edozein aldaketaren berri emateko, emandako dirulaguntza osoa justifikatu arte.

h) Ez jasotzea zehapen administratibo edo penalik sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik –zehazki, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa–, edo zehapen-epea igaro izana.

i) Ez edukitzea laguntzak edo dirulaguntzak jasotzea eragozten dion legezko kausarik, hauek barne:

– Ez izatea berdintasun-planik indarrean, baldin eta Estatuaren araudiaren arabera horretara behartuta dagoen enpresa bada.

– Ez edukitzea ezarrita neurririk sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena edota indarkeria sexualak prebenitu eta borrokatzeko, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuak ezarrita dituen legeen arabera, 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan.

– LGTBIfobia izatea, bultzatzea edo sustatzea, bihurketa-terapiak sustatzea edo egitea barne.

j) Ez egotea zehatuta Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitakoaren arabera, arau-hauste astun edo oso astun batengatik, eta administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez, harik eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu eta zehapena ordaindu arte.

k) Desgaitasuna duten pertsonentzat lanpostuak gordetzeko legez ezarritako kuota betetzea, edo, bestela, hori betetzeko neurri alternatiboak hartzea.

l) Ez egotea Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debeku-kausen eraginpean.

m) Ez izatea inskripzio-prozedura administratiboa eten zaion elkarte bat legez kontrako egintza penalen zentzuzko zantzuak aurkitu direlako, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuta, edo, eten bazaio ere, eman izana ebazpen judizial irmoa eta, beraz, izatea dagokion erregistroan inskribatzeko aukera.

3.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztatzen ez dituen artikulua honetan aurreikusitako betekizunak eskaera-orrian dagoen erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatu beharko dira.

4.– Entitate onuradunek proiektuak diseinatzeko eta aurrera eramateko fase guztietan eta jarduketan bakoitzean bermatu behar dute erabat betetzen dituztela «ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa («do no significant harm–DNSH» printzipioa) eta etiketatze klimatiko eta digitala, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean, Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren 2021eko uztailaren 13ko Exekuzio Erabakian (Council Implementing Decision-CID) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, baita hura garatzeko araudian ezarritakoarekin bat ere; batez ere, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 5. artikuluan ezarritakoarekin bat: artikulua horren arabera, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean sartutako erreforma eta inbertsioen exekuzio-neurri batek berak ere ez die kalte nabarmenik eragingo (DNSH) sei ingurumen-helburuei.

5.– Halaber, erakunde onuradunek konpromisoa hartu beharko dute behar diren eskubideak eta sarbideak onartzeko, Batzordeak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Europako Kontuen Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta estatuko agintari eskudunek dagozkien kontrol-eskumenak betetzeko aukera dutela bermatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren («Finantza Erregelamendua») 129.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

7. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduketak.

1.– Deialdi honen babesean, dirulaguntza jaso daiteke 8. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonak kontratatzeagatik, praktikaldiko kontratuaren bidez, enpleguaren arloan lehen esperientziak izan ditzaten eta konpetentzia eta abilezia sozialak eta profesionalak eskuratu ditzaten.

Edonola ere, enplegu-eskaintzak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatuko ditu.

Horrez gainera, kontratatutako pertsonak dagokion enplegu zerbitzu publikoko orientatzaile baten laguntza izango dute zerbitzua ematen duten bitartean, betiere enplegu-eskaeran alta emanda badaude.

2.– Programa honen etiketatze berde eta digitalarekin lotutako obligazioak betetzeko, hiru kontrataziotarako dirulaguntza eskatzen bada, haietako bat, gutxienez, enplegu berdeari edo konpetentzia digitalen arloko enpleguari lotuta egon beharko da. Lau kontrataziotarako eskatzen bada, gutxienez haietako bat enplegu berdeari lotuta egon beharko da, eta beste bat konpetentzia digitalen arloko enpleguari. Bost edo gehiagorako eskatzen bada, % 20, gutxienez, enplegu berdeari lotutakoak izan beharko dira, eta % 20, konpetentzia digitalen arlokoak. Ehuneko horiek aplikatuta dezimalak dituen zifra bat ateratzen bada eta digitua 5 edo hortik gorakoa bada, goiko zenbaki osoa hartuko da.

Entitate batek eskabide bat baino gehiago aurkezten badu, guztira egingo dituen kontratazioen kopuru osoa hartuko da kontuan baldintza hau betetzeari dagokionez.

Entitate eskatzailearen jarduera ekonomia berdearekin edo digitalarekin lotuta badago, ez da eskatuko 2. apartatu honetan xedatutakoa betetzeko, eta dirulaguntza eskatzeko aurkeztu dituen kontratazio guztiak enplegu berdekoak edo konpetentzia digitalen arlokoak direla ulertuko da.

3.– Kontratuek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Kontratutako pertsonak entitate onuradunen eskumeneko eginkizunak edo lanak egin beharko dituzte.

b) Kontratutako langabeen lanbide-heziketa eta -praktika sustatuko dira. Horretarako, kontratazioak kontratatutako pertsonaren prestakuntza akademikoaren edo profesionalaren araberako lanpostuetarako izan beharko dira.

c) Kontratuen gutxienerako iraupena hamar hilabetekoa izango da, eta gehienekoa, berriz, hamabi hilabetekoa. Lanaldi osoko kontratuak egingo dira.

d) Diruz lagundutako kontratuak indarrean dauden bitartean, entitate onuradunek informazio profesionala, orientazioa edo prestakuntza eman beharko diete hartzaileei, eta lan-arriskuen prebentziorako dagozkien betebeharrak guztiak bete beharko dituzte. Horrez gainera, ezagutza digitalak eguneratzearekin lotutako neurriak garatuko dira modu egokian.

e) Kontratu hauei urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Langileen Estatutuaren testu bateginaren 11.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

f) Nolanahi ere, kontratazio hauen bidez ezin izango dira bete entitate kontratatzaileetan dauden eta aurrekontu-zuzkidura duten egiturazko plazak, lanpostuen zerrendan, plantillan edo giza baliabideak antolatzeko beste tresna baten barruan sartuta egon edo ez.

4.– Programa honen barruan, ezin izango dira diruz lagundu ondoren aipatzen diren jarduerekin lotutako lanpostuak, haien finantzaketa baztertuta baitago Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean:

1.a Erregai fosilekin lotutakoak (geroagoko erabilera barne).

2.a Isuri-eskubideen merkataritza-araubidearen (ETS) esparruko jarduerak, berotegi-efektuko gasen isuri proiektatuak doako esleipenerako ezarritako erreferentzia-balioak baino nabarmen txikiagoak ez badira.

3.a Hondakinen zabortegien instalazioetan, tratamendu biologiko mekanikorako (MBT) instalazioetan edo hondakinen tratamendurako erraustegietan egindakoak.

4.a Hondakinen epe luzerako ezabaketak ingurumenean epe luzera kalteak eragin ditzaketen jarduerak (adibidez, hondakin nuklearrak).

8. artikulua.– Kontratatutako pertsonen betekizunak.

Kontratatzen diren pertsonak betekizun hauek bete behar dituzte kontratuaren hasieran:

a) 16 urte baino gehiago eta 30 baino gutxiago izatea.

b) Langabea izatea eta dagokion enplegu zerbitzu publikoan alta emanda egotea enplegu-eskaizaille gisa.

c) Praktikaldiko lan-kontratu bat hitzartzeko betekizunak betetzea, Langileen Estatutuaren 11.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.

9. artikulua.– Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

1.– Dirulaguntza-eskaerak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen bidez aurkeztu behar dira: <https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa> Hara iristeko esteka bat egongo da Lanbideren web-orrian: <https://www.lanbide.euskadi.eus>

Administrazio-prozeduraren informazio-fitxa (hor daude jasota izapidetzeko jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak) helbide honetan dago: <https://www.euskadi.eus/servicios/1209802>. Fitxa horren bitartez eskuratu daiteke eskaera egiteko inprimakia.

Eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak eta jakinarazpenak «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Era berean, eskabidea ordezkari baten bidez izapidetu ahal izango da elektronikoki. Horretarako, ordezkariak Eusko Jaurlaritzaren ahalordeen erregistro elektronikoa eman beharko du izena, honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ahalordeen-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>.

2.– Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da, eta 2024ko urriaren 31n amaituko da.

3.– Eskabidearekin batera, dokumentu hauek aurkeztuko dira:

a) Bete nahi diren lanpostuak azaltzen dituen memoria, non alderdi hauek zehaztuko baitira: 2.2. eta 7.2 artikuluekin bat etorrira, enplegu berdeak ala konpetentzia digitalen arloko enple-

guak diren, egin beharreko jardueren ezaugarriak zein diren eta eskatutako titulazioarekin lotura duten, kontratuen iraupena eta kopurua, eta egingo diren kontratazioen soldata-kostuen inguruko aurreikuspenak.

Edonola ere, memorian berariaz aipatu beharko da 7.3.f) artikuluan ezarritakoa betetzen dela.

b) 6.4 artikuluan jasotako «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa («do no significant harm – DNSH» printzipioa) betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 2. artikuluko 6. apartatuan ezarritako moduan (Europako Parlamentuak eta Batzordeak 2021eko otsailaren 12an onetsi zuen erregelamendu hori). (I. eranskina).

c) Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) (II. eranskina).

d) Iruzuraren aurkako politika ezagutzen dela eta harekin bat egiten dela agertzen duen erantzukizunpeko adierazpena (III. eranskina).

e) Finantzaketa bikoitzik ez duela dioen erantzukizunpeko adierazpena (IV. adierazpena).

f) Tartean dauden administrazio publikoen artean datuak lagatzeko eta tratatzeko adierazpena, SEEPeko jarduketak aurrera eramatearekin lotua, aplikatu behar den Europako araudian xedatutakoa betetzeko, bat etorrita Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoarekin (3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa) (V. eranskina).

g) SEEP-NextGenerationEU planean ezarrita dauden eta kudeatu beharreko esparruari eragin diezaioketen zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena. (VI. eranskina).

h) Berariazko baimena, 65.5 artikuluan aipatzen dena, Batzordeak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF), Europako Kontuen Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta estatuko agintaritzak eskudunek beren eskumenak balia ditzaten Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan eta Europako Parlamentuaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Finantza-Erregelamenduaren 129. artikuluan xedatutakoari dagokionez. (VII. eranskina).

i) SEEPeko jarduketak egiteko konpromisoa hartzeko adierazpena (VIII. eranskina).

3. apartatu honetan aipatzen diren ereduak <https://www.euskadi.eus/servicios/12098> helbidean eskura daitezke.

4.– Eskabideak ez badaude behar bezala guztiz beteta, edo haiekin batera ez bada aurkezten aurreko apartatuan adierazitako dokumentazio guztia, entitateari hamar eguneko epea emango zaio akatsa zuzen dezan edo aginduzko dokumentuak aurkez ditzan. Gainera, jakinaraziko zaio ezen, hori egiten ez badu, ulertuko dela eskabideari uko egin diola. Hala bada, Administrazioak eskabide horri buruzko ebazpena eman beharko du espresuki, bai eta jakinarazi ere.

10. artikulua.– Ebazteko eskumena duen organoa, emakida-prozedura, ebazpena, epeak, gora jotzeko errekurtoa eta publikotasuna.

1.– Eskabideak kudeatzeko, izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna Laneratzea Aktibatze Zuzendaritza da.

2.– Deialdi honetako dirulaguntzak lehiarik gabeko prozeduraren bidez izapidetuko dira.

Horrenbestez, aurkezten diren ordenaren arabera aztertuko dira eskabideak, eta ebatzi, berriz, espediente bakoitza osorik noiz dagoen ordena horren arabera ebatziko dira, harik eta finantza-

ketarako funtsak amaitu arte. Aurrekontu-zuzkidura bukatzen denean, geratzen diren eskaerei ukatu egingo zaie dirulaguntza, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatzeke zuzendariaren ebazpen baten bidez emango da horren berri, ebazpena EHAAn eta www.lanbide.euskadi.eus webgunean argitaratuta.

3.– Prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, eskabidea aurkezten den egunetik aurrera. Epe hori igaro ondoren ebazpen espresurik jakinarazten ez bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertu beharko da.

4.– Ebazpena ematekoa bada, «Administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa» Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren barruan finantzatuta dagoela zehaztuko da, eta elementu hauek izango ditu gutxienez:

- a) Emango den dirulaguntzaren zenbatekoa eta kontratatu beharreko pertsonen kopurua.
- b) Kontratuko diren pertsonen lanbide-kategoria, lanbide-taldea edo lanbide-maila.
- c) Pertsona bakoitzari egingo zaion kontratuaren iraupena.
- d) Egingo diren kontratazioen kokapen geografikoa.

5.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatzeke zuzendariaren ebazpenek ez diote amaierarik emango administrazio-bideari, eta, haien aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

6.– Publikotasun-printzipioa betetzeko, eta emakida-ebazpenak espresuki eta banaka jakinarazteaz gainera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatzeke zuzendariaren ebazpen bidez, arau honen babesean emandako dirulaguntzen onuradun diren entitateen zerrenda, eta zer zenbateko jasoko dituzten ere adieraziko da. Halaber, erakunde bati emandako dirulaguntza aldatzea erabaki bada, inguruabar hori ere adieraziko da, eta berariaz aipatuko da Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan finantzatutako programa bat dela.

11. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzeko modua.

1.– Ebazpena eman ondoren, dirulaguntzaren zenbateko osoaren ordainketa aurreratua egingo da. Ez da bermerik eratu beharko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren alde.

Dirulaguntzaren izaera aintzat hartuta, egindako funts-aurrerakinek sortutako finantza-etekinek ez dute handituko emandako dirulaguntzaren zenbatekoa.

2.– Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izateko, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan sartuta egon behar du entitate eskatzaileak.

Entitatea ez badago erregistratuta, edo Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroan dauden banku-datuak aldatu nahi baditu, helbide honetan egin ahal izango du: <https://euskadi.eus/hirugarrenak>

12. artikulua.– Programan parte hartzen duten gazteak aukeratzeko eta langileak kontratatzeke prozedura.

1.– Dirulaguntza jaso dezaketen praktikaldiko kontratuak egiteko, entitate onuradunek enplegu-eskaintza kudeatzeko eskabide bat aurkeztu beharko dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan. Eskabide bat aurkeztu beharko da beteko den lanpostu-profil bakoitzeko, eta dirulaguntzak ema-

teko ebazpena jakinarazi ondoren aurkeztu beharko da, kontratuak hasi baino hamabost egun lehenago, gutxienez.

Enplegu-eskaintzak kudeatzeko eskabideak eskabide horiek jasotzen dituen bulegoak erregistratuko ditu, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartekaritza-sisteman identifikatuta geratuko dira.

Ez da aplikatu behar administrazio publikoetako langileak aukeratzeko prozeduretarako ezarritako araudia, nahiz eta entitate onuraduna administrazio publiko bat izan. Azken kasu horretan, aukeratutako pertsonak ez dira joko erakundeko plantillako edo lanpostuen zerrendako langilezat, eta, beraz, ez da beharrezkoa izango aurretik lan-eskaintza publikorik egitea.

Era berean, deialdi honen bidez ezin izango dira bete administrazioaren barruko egiturako lanpostuak, 7.3.f) artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.– Eskaintzak hautagaitzen parekatze automatikoaren bidez kudeatuko dira, eta Lanbideren webgunean argitaratuko dira: <https://www.lanbide.euskadi.eus>

3.– Dirulaguntza jaso dezaketen praktikaldiko kontratuak betetzeko hautagaien azken aukeraketa entitate onuradunak egingo du, irizpide hauek kontuan hartuta:

- a) Eskaintako lanposturako egokitzapen handiagoa izatea.
- b) Garatu beharreko gaiarekin lotutako ikasketa bereziak izatea.
- c) Curriculumaren eta hautagaien balorazioa egiteko, curriculum vitae itsua erabili beharko da, eta inolako diskriminaziorik ez egiteko printzipioa bermatuko da.
- d) Eskabidea egiten denean, entitate onuradunak lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko eta genero-berdintasuna bermatzeko jada ezarrita dituen neurriak.

4.– Kontratuak bi hilabeteko epearen barruan hasi beharko dira, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, ezinbesteko arrazoiak edo behar bezala justifikatutako arrazoiak daudenean salbu. Kasu horretan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak baimendu beharko du atzerapena. Edonola ere, kontratuak hasteko epea 2024ko abenduaren 31n amaituko da.

5.– Entitate onuradunak kontratuak abian jarri dituela adierazi beharko dio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, azken kontratua hasi eta 15 egun balioduneko epean, eta zenbat pertsona kontratatu dituen adieraziko dio.

Benetan kontratatutako pertsonen kopurua eskabidean aurreikusitakoa eta laguntza emateko ebazpenean ezarritakoa baino txikiagoa bada, erakunde onuradunak bere borondatez itzuliko du egin ez diren kontratazioei dagokien dirulaguntzaren zenbatekoa, eta dirulaguntza horiei uko egiten diela adierazi beharko dio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, zeinak dagokion ordainketa-gutuna emango baitio erakundeari, itzuli beharrekoa ordain dezan. Horretaz gain, dirulaguntza ordaintzen denetik dirulaguntzari uko egiten zaion egunera bitarteko berandutze-interesei dagokiena (dirulaguntzen arloan aplikatu beharrekoa) ere itzuli beharko du.

6.– Kontratuak Contrat@ sistemaren bidez komunikatu beharko dira, hasten direnetik 15 egun balioduneko epean, honako hau adierazita: «Administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa. Suspertze- eta erresilientzia-mekanismoa», aplikazio horretan aurreikusitako eran.

13. artikulua.– Lan-kontratua azkentzea.

Diruz lagundutako lan-kontratuak dirulaguntzaren epealdia amaitu aurretik azkentzen badira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari adierazi beharko zaio kontratua azkentzen denetik 7 egu-

neko epean, eta azkendutako kontratuaren kontura jasotako dirulaguntza guztia itzuli beharko da. Halaber, dagokion prozedura izapidetuko da, 19. eta 20. artikuluek arautzen dituzten jarraibideak beteta. Nolanahi ere, kontratua azkentzeko arrazoia probaldia ez gainditzea, langileak lana bere borondatez uztea, bidezkotzat jotako kaleratzea edo kontratatutako pertsonaren heriotza edo baliaezintasuna izan baldin bada, lan-kontratuak iraun duenaren proportzioan murriztuko da dirulaguntzaren zenbatekoa.

Diruz lagundutako lan-kontratua aurretiaz azkendu ondoren, enpresak beste pertsona bat edo batzuk kontratatu nahi baditu, beste dirulaguntza-eskabide bat aurkeztu beharko du, deialdi hone-tan xedatutakoaren arabera, 9.2 artikuluan ezarritako epearen barruan.

14. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa eta epea.

1.– Dirulaguntzen erakunde onuradunak, kontratazioak amaitu eta bi hilabeteko epean, diruz lagundutako jarduerak eta egindako gastuak bete izanaren justifikazioa aurkeztu beharko du, moduluen araubidearen bidez, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 20/2023 Legearen 32.1 artikuluan eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 69., 76., 77., 78. eta 79. artikuluetan aurreikusita-koaren arabera.

Justifikazio horretan, entitate onuradunak aurkeztu beharreko dokumentazio hau jasoko da:

a) Dirulaguntza ematean ezarri ziren baldintzak bete diren justifikatzen duen memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituenak. Memoriak honako hauek jasoko ditu:

1.– Kontratatutako parte-hartzaileek egindako jarduketak, baita, 7.3 artikuluko d) letran adie-razitako betekizuna betetzeko, entitate onuradunak egindakoak. Hauek zehaztu beharko dira: kompetentzia eta enplegu berdeetan parte hartu dutenen kopurua eta ehunekoa, eta kompetentzia eta enplegu digitaletan parte hartu dutenen kopurua eta ehunekoa.

2.– Kontratatu diren pertsonen azken aukeraketarako aplikatutako irizpideak, 12.3 artikuluan ezarritakoarekin bat.

3. «Kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa («do no significant harm–DNSH» printzipioa) betetzen dela egiaztatzeko aurrez ikusitako mekanismoak eta printzipio horren ezarpena bermatze-ko neurri zuzentzaileak.

b) Memoria ekonomikoa, egindako jardueren kostua justifikatzeko, lortutako emaitzen arabera. Alderdi hauek jasoko ditu, gutxienez:

1.– Onuradunaren egiaztapena edo adierazpena modulutzat jotako unitate fisikoen kopuruari dagokionez. Horretarako, kontratatutako pertsonak dagokien Gizarte Segurantzako kotizazio-tal-dearen arabera eta kontratatuta egon diren hilabeteen arabera zehaztuko dira, 5. artikuluan aurreikusitakoa kontuan hartuta.

2.– Jarduketa-memorian kuantifikatutako jarduerak eta 5. artikuluan ezarritako moduluak oina-rrizat hartuta kalkulaturako dirulaguntzaren zenbateko osoa, artikuluan ezarritako kostu unitarioen bidezko kalkulurako eta kuantifikaziorako sistemaren arabera.

Dirulaguntzaren likidazioa proiektuan kontratatutako pertsonen arabera egingo da, kontratatuta egon diren hilabete bakoitzeko. Likidazioak ez du inola ere gaindituko hasieran emandako dirula-guntzaren zenbatekoa. Kalkulua egiteko, kontuan hartuko da kontratatutako pertsonen kopurua, kontratatuta egon diren hilabete bakoitza eta dagokien modulua, Gizarte Seguratasunaren koti-zazio-taldearen arabera.

3.– Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera eta dirulaguntza batzuen zerrenda, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

2.– Dokumentazioa ez bada aurkezten ezarritako epean, edo aurkezturiko dokumentaziotik ondorioztatzen bada justifikatutako kopurua aurrerakin gisa jasotakoa baino txikiagoa dela, itzul-keta-prozedura abiaraziko da, 20. artikuluan arautzen den prozedurari jarraituz.

3.– Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.3.d) artikuluan xedatutakoa betez, kontratatutako langabeei, erakunde onuradunen titularrei eta haien plantillari buruzko informazioa emango da dirulaguntzak ematerakoan ezarritako betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten memorietan, sexuaren arabera banakatuta.

15. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluetan ezarritakoak, deialdi honetan aurreikusitako eta urriaren 24ko TES/1152/2021 Aginduan berariaz aurreikusitakoak, eta, bereziki, honako hauek:

- a) Enplegu-eskaintzak kudeatzeko eskabideak aurkeztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan.
- b) Kontratuen hasieraren berri ematea azken kontratua hasi eta hamabost egun balioduneko epearen barruan, kontratatutako langabetuen kopurua zehaztuta.
- c) Frogatu behar dute laguntza emateko eta hura baliaitzeko bide eman duten betebeharrak eta baldintzak betetzen dituztela eta jarduera gauzatzen dutela.
- d) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea kontratuen azkentzeak, 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- e) Xede bererako beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu baten (Estatuko edo nazioarteko baten) dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat jasoz gero, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari horren berri ematea, kostu beraren gainean finantzaketa bikoitzik ez gertatzeko.
- f) Dirulaguntza ematerakoan kontuan hartutako egoeraren bat, objektiboa edo subjektiboa, aldatu bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea.
- g) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta sozietate publikoek emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi, eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzultze- edo zehapen-prozedura jakinaraztea.
- h) Honako hauen egiaztatze-jarduketegi baiezkoa ematea: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, Lan eta Enplegu Saila, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikus-katzailetza. Baiezkoa eman beharko zaie, halaber, hala badagokio, hauen egiaztatze-jarduketegi ere: Estatuko Kontu-hartzailetza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako jarduketegi, eta Kontuen Auzitegiaren legerian aurreikusitakoei eta Auditoretzako Bulego nazionalak egin ditzakeenei.
- i) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko betekizunak:
 - Emakumeen eta gizonen arteko tratu- edo aukera-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa aplikatzea bermatuko da lanpostuei loturiko hautaprotetan, elkarrizketetan eta pertsonak hautatzean.

– Zer hautagai aukeratu erabaki behar denean, gutxienez emakume batek parte hartu behar du erabakia hartzeko prozesuan. Ezinezkoa bada, justifikatu egin behar da.

– Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan, hizkuntza ez sexista erabili beharko dute, saihestu beharko dute emakumeen irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista oro, eta irudi jakin bat sustatu beharko dute, balio hauek izango dituenak: berdintasuna, emakume eta gizonen presentzia orekatua, aniztasuna, ardura partekatua, eta rol- eta genero-identitate plurala.

16. artikulua.– Entitate onuradunentzako betebeharrak bereziak, Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketari buruzkoak.

Entitate onuradunek, gainera, Europar Batasunaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketari buruzko Europako eta Estatuak betebeharrak hauek bete beharko dituzte. Horretarako, betebeharrak hauek dituzte:

a) Erabat betetzen direla bermatzea «DNSH – Do Not Significant Harm» printzipioa (ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa), klimaren arloko etiketatzearen baldintzak (baliabide ekonomikoen ehuneko 20 enplegu berdeen ildorako erabiliko da, ingurumena zaintzen eta leheneratzen laguntzen baitute; ildo hori bat dator Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren VI. eranskineko «01-Kompetentzia eta enplegu berdeetarako ekarpena» esku-hartze eremuarekin) eta etiketatze digitalaren baldintzak (baliabide ekonomikoen ehuneko 20 kompetentzia digitalen arloko lanpostuen ildorako erabiliko da, Europako Kontseiluak ezarritako herritarrentzako kompetentzia digitalen Europako Esparruarekin (DIGCOMP) bat etorrira), arau hauetan ezarritakoarekin bat: Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana; Kontseiluaren Exekuzio Erabakia, Espainiako Suspertze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoa (Council Implementing Decision – CID); Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamendua, eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 5. artikulua (aginduak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eta hura garatzeko araudia eratzen ditu, proiektuen diseinuaren eta exekuzioaren fase guztietan eta jarduera bakoitzerako banaka). Entitate onuradunek, nolana ere, printzipio hori betetzen dela egiaztatzeko mekanismoak eta aplikatzen dela ziurtatzeko neurri zuzentzaileak aurreikusiko dituzte, eta horren berri emango dute dirulaguntza justifikatzeko memorian.

b) Interes-gatazkarik, iruzurrik eta ustelkeriarik ez dagoela bermatzea, eta baldintzarik eta erreparorik gabe onartzea dirulaguntza eman duen administrazioak onartutako Iruzuraren Aurkako Neurrien Plana. Plan horren xedapenak erabat bete beharko dira, autonomia-erkidegoko, estatuak eta Europako araudia zeharo errespetatuz, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, atzemateari eta zuzentzeari dagokienez, eta Europar Batasuneko erakundeek beren finantza-interesak babesteari buruz hartzen dituzten erabakiekin bat etorritik.

c) Europako Batzordeak, Iruzuraren Aurkako Europako Bulegoak, Europako Kontuen Auzitegiak eta Europako Fiskaltzak ezarritako kontrolak onartzea. Horretarako, dirulaguntzari buruz eskatutako informazio guztia emango zaie organo horiei, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan ezarritakoaren arabera.

d) Entitateak bermatu behar du badakiela laguntza horren finantzaketa Europar Batasuneko SEMetik datorrela, eta, beraz, bere gain hartzen dituela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamendutik (hau da, SEMa ezartzen duen erregelamendutik) eta finantzaketa horri aplikatu beharreko gainerako Europar Batasuneko arauetatik edo estatu-arauetatik eratorritako betebeharrak guztiak. Hori erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatzea behar da.

e) Batzordeari, Iruzzurraren Aurkako Europako Bulegoari, Kontuen Auzitegiari eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltzari Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluko 1. apartatuak aitortzen dizkien eskubideak egikaritzeko baimena ematea, eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren sartutako erreformak eta inbertsio-proiektuak aplikatzeko neurrietarako ordaindutako funtsen azken hartzaile guztiak behartzea, edo aplikazioan esku hartzen duten gainerako pertsona edo entitate guztiak, eta berariaz baimena ematea Batzordeari, Iruzzurraren Aurkako Europako Bulegoari, Kontuen Auzitegiari eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltzari, Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluko 1. apartatuak aitortzen dizkien eskubideak egikaritzeko eta antzeko betebeharrak ezartzeko funtsen azken hartzaile guztiei.

f) Jasotako funtsen aplikazioaren egiaztagiria eta dokumentu elektronikoak bost urtez zaintzea eta gordetzea, edo hiru urtez, baldin eta finantzaketaren zenbatekoa 60.000 eurokoa edo txikiagoa bada, egiaztapen- eta kontrol-jarduerak egin ahal izateko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko (EB, Euratom) 2018/1046 Erregelamenduaren 132. artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.f) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

g) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema zehazten duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikulua ezarritako komunikazio-betebeharrak betetzea. Bereziki, inbertsioen jardueri buruzko informazio- eta komunikazio-neurrietan (informazio-kartelak, plakak, argitalpen inprimatuak zein elektronikoak, ikus-entzunezko materiala, webguneak, prentsako iragarkiak eta txertaketak, ziurtagiriak, eta abar), logotipo hauek sartu beharko dira: a) Europar Batasunaren ikurra; b) Batasunaren ikurrarekin batera, «Europar Batasunaren Next Generation EUk finantzatua» testua; c) 821/2014 Exekuzio Erregelamenduaren II. eranskinean ezarritako arau grafiko eta kolore normalizatuak hartuko dira kontuan.

h) Beren identifikazio-datuak datu-base batean sartzeari, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluan eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan adierazitakoaren arabera.

i) Diruz lagunduta egiten diren jarduketaren fidagarritasunaren eta jarraipenaren erantzule izatea, une oro jakin ahal izateko jarduketa bakoitza zenbateraino bete den. Hirugarrenek egin beharreko jarduketaren kasuan, mekanismoak ezartzea hirugarren horiek aurreikusi diren jarduketak aurrera eramaten laguntzen dutela ziurtatzeko eta –hala badagokio– behar diren suspertze-planaren adierazle, mugari eta helburuen balioa zehazteko beharrezkoa den informazioa ematen dutela ziurtatzeko.

j) Tartean diren administrazio publikoen artean datuak lagatzea onartzea, aplikatzekoa den Europako araudia betetzeko, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta funtsen azken hartzailearen identifikazioa arautzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikulua osoarekin bat etorriz. Informazio horrek eskuragarri egon behar du irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan arabera, eta hori guztia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.d) artikulua garatzeko.

17. artikulua.– Identifikazioa eta publizitatea.

Deialdi honen babesean diruz lagundutako jarduketak eta jarduketa horiek eta administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa direla-eta egiten den publizitate guztia behar bezala identifikatuta egon beharko dira, Estatuko araudiak eta Europar Batasunak Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarako ezartzen dituzten informazioaren, komunikazioaren eta publikotasunaren arloko betebeharrarekin bat etorrira.

Hala, dirulaguntza hauek jasotzen dituzten entitateek finantzaketa horren jatorriaren berri eman beharko dute jarduketan publizitatean, eta ikusteko moduan jarri beharko dute informazio hori. Hala dagokionean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren identifikazio grafikoaz eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren logoaz gainera, Europar Batasunaren ikurra txertratuko dute, eta finantzaketari buruzko adierazpen egoki bat, hau dioena: «Europar Batasunak – NextGenerationEUk finantzatua». Helbide honetan eskuratu ahal dira elementu horiek: <https://planderecuperacion.gob.es/identidad-visual> Ikusgarritasun hori gauzatuko da, bereziki, diruz lagun daitezkeen jarduerak eta horien emaitzak sustatzen direnean; horretarako, informazio koherente, eraginkor eta neurrizkoa emango zaie hartzaile askori, baita hedabideei eta publikoari ere.

18. artikulua.– Dirulaguntza aldatzea.

1.– Dirulaguntzak emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketarik gertatuz gero, emandako dirulaguntza aldatu ahal izango da, betiere deialdi honetan dirulaguntzen onuradun izateko ezarritako gutxieneko eskakizunei eusten bazaie, eta horiek emateko ezarritako irizpideak eta mugak betetzen badira.

Emakida-ebazpena eman ondoren, onuradunak dirulaguntza aldatzeko eskatu ahal izango du. Aldaketa hori eskatzeko, ebazpena eman ondoren eta diruz lagundutako jarduera egiteko epearen barruan gertatutako inguruabarrak izango dira oinarri, eta entitate onuradun bakoitzarentzat eskatu beharko da. Eskaera inguruabarra gertatu eta berehala formalizatu beharko da, eta, edonola ere, jarduera egiteko epe hori amaitu baino lehen. Aldaketak ezin die inola ere eragin Batasuneko araudiak edo Estatukoak ezarritako betebeharreri, bereziki Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren 2021eko uztailaren 13ko Exekuzio Erabakian (Council Implementing Decision-CID) ezarritako mugarriak edo helburuak edo egiteko epea ez betetzea badakar.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatzeke zuzendariak ebazpena eman beharko du aldaketa onartzeko edo ukatzeko, eskaera egin eta bi hilabeteko epean. Epe hori igaro eta ebazpen espresurik jakinarazi ez bada, eskabidea ezetsizat jo beharko da. Ebazpenek, gehienez ere, aldaketa-eskaera aurkeztu den unera eramán ditzakete ondorioak Nolanahi ere, aldaketa egiteko baimena soilik eman ahal izango da hirugarrenei kalterik eragiten ez badie.

2.– Baldintzen aldaketa horren ondorioz dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko prozedurari emango zaio hasiera.

19. artikulua.– Ez-betetzeak.

Deialdi honetako dirulaguntzen erakunde onuradunek ez badituzte betetzen Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluetan ezarri zaizkien betebeharrak, edo deialdi honetan berariaz ezarri zaizkienak, edo Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan adierazitako dirulaguntza itzultzeko kasuren batean sartzen badira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatzeke zuzendariak, dagokion ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari jasotako kopuruak itzuli behar zaizkiola erabakiko du, bai eta dirulaguntza ordaindu zenetik hura itzuli behar dela erabakitzen den egunera bitarte edo zordunak itzulketa egiten duen arte –itzulketa egin behar duela erabaki aurretik egiten badu– dirulaguntzen arloan aplikagarriak diren berandutze-interesak itzuli behar zaizkiola xedatu ere, egokiak diren bestelako ekintzak eragotzi gabe, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

Zenbateko horiek zuzenbide publikoko sarreratzat joko dira dagozkien lege-ondorioetarako, eta Dirulaguntzen Araubidea erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 46. artikuluan aurreikusitako erantzukizun-araubidea jarraituko da.

Hala ere, deialdi honen bidez emango diren dirulaguntzetan, eragiketaren kostua diruz lagundutako zenbatekoa baino txikiagoa izan delako itzuli beharreko zenbatekoei ez zaizkie Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean aurreikusitako berandutze-interesak aplikatuko, baldin eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko esleitutako helburuak bete badira eta beste itzultze-arrazoirik ez badago. Hori guztia honako lege hauetan xedatutakoa kontuan hartuta: batetik, 5/2023 Errege Lege Dekretua, ekainaren 28koa, neurri jakin batzuk ezartzen eta luzatzen dituen Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuna emateko, La Palma uhartera berreraikitzen laguntzeko eta bestelako zaurgarritasun-egoerak gainditzeko; Europar Batasunak merkataritza-sozietateen egiturazko aldaketez eta gurasoen eta zaintzaileen bizitza profesionala eta familiarra uztartzeari buruz emandako zuzentarauen transposizioa egiten duena, eta Europar Batasunaren zuzenbidea betetzen eta betearazten duena (216. artikulua), eta, bestetik, abenduaren 27ko 8/2023 Errege Lege Dekretuaren hamabigarren xedapen gehigarria; errege lege-dekretu horren bidez Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazkek eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko eta lehortearen ondorioak arintzeko neurriak hartzen dira.

Ez-betetze partzialen kasuan, hasieran aurrez ikusitako eperako kontratatzeko betebeharra edo ezarritako eran kontratatzeko betetzen ez bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatze Zuzendaritzak zehaztuko du entitate onuradunak itzuli beharreko kopurua, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuta, justifikatutako kostuen eta egiaztatutako jarduketan arabera, zenbatekoa osorik itzuli behar denean salbu.

DNSH printzipioa betetzen ez bada, onuradunak ordura arte jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako moduan. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren laguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra arautzen da, eta kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileen baldintzak, araubidea eta obligazioak ezartzen dira.

Jasotako zenbatekoak itzuli behar dira, halaber, mugarriak, helburuak edo egutegia betetzen ez direnean, interes-gatazken adierazpenak izaten direnean edo SEEP-NextGenerationEU arautegia-rekin lotutako beste edozein alderdi betetzen ez denean, 2024ko Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 22ko 21/2023 Legean eta Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 37.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamendua ere kontuan hartu behar da, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.

20. artikulua.– Dirua itzultzeko prozedura.

1.– Dirulaguntzak itzultzeko prozedurak bat etorri beharko du Dirulaguntzen Araubidea Erregulatze abenduaren 21eko 20/2023 Legearekin eta hura garatzeko araudiarekin.

2.– Aurreko artikuluan aipatutako ez-betetzereen bat gertatzen baldin bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatze zuzendariak erakunde interesdunari jakinaraziko dio itzultzeko prozedura hasi dela, eta zergatik hasi den, eta 15 eguneko epea emango dio egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkez ditzan.

3.– Alegazioak jasotakoan, edo, horrelakorik aurkeztu ez bada ere, epea igarotakoan, prozedura amaituko da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatze zuzendariaren ebazpen baten bidez. Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez 12 hilabeteko epean ebatzi beharko da.

4.– Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenak ez-betetzereen bat izan dela adierazten baldin badu, bertan deklaratu da dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu dela, eta ezarriko da, hala badagokio, dagozkion zenbatekoak EAEko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko betebeharra; itzultzeko epea bi hilekoa izango da ebazpena jakinarazten denetik aurrera. Borondatezko alditzat joko da epe hori.

5.– Borondatezko epe horretan dirulaguntza itzultzen ez bada, dirulaguntza premiamendu-bidetik eskuratzeko izapideak hasiko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketa Erregelamenduan ezarritakoaren arabera zorraren konpentsazioa aplikatu behar denean izan ezik.

21. artikulua.– Datu-babesari buruzko informazioa.

Datu pertsonalen babesaren arloan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren jardura honako bi xedapen hauen mende egongo da: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (EB 2016/679 Erregelamendua) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa. Lortzen diren datu pertsonalak «Enplegurako eta enpleguko prestakuntzarako dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueraren barruan egongo dira. Jardura horren arduraduna Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua da, eta jardueraren helburua da Lanbideren eskumen diren enplegu-politika aktiboekin zerikusia duten dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea, bai eta iruzurra jazartzea eta datuak estatistiketan erabiltzea ere. Eskuratzen diren datuak beharrezkoak dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari emandako botere publikoak gauzatzeko eta lege-betebeharrak betetzeko, eta arlo horretan eskumena duten administrazio publikoei komunikatu ahal izango zaizkie.

Datuen titularrek datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko eta informazioaren tratamendua mugatzeko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte tratamenduaren arduradunaren aurrean, datuen babesaren arloko eskubideak baliatzeko prozeduraren bidez. Prozedura hori www.euskadi.eus/servicios/10842/ helbidean argitaratu da.

Datuen babesari buruzko informazio gehiago dago hemen: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/074300-cap2-eu.shtml>

22. artikulua.– Aplikatu beharreko araudia.

1.– Deialdi honetan jasotako laguntzei arau hauetan xedatutakoa aplikatuko zaie: TES/1152/2021 Agindua, urriaren 24koa, «Administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa» finantzatzeko dirulaguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituen; 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta berau garatzen duen araudian (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua) jasotako oinarritzko arauak, eta 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako dirulaguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen eskakizunak, araubidea eta betebeharrak ezartzen dituen.

2.– Laguntza hauek Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak finantzatzen dituzenez, arau hauetan xedatutakoa ere bete behar dute:

a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamendua, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.

b) 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onesten baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko.

c) HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena.

d) TES/897/2021 Agindua, abuztuaren 19koa, zeinaren bidez Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzatutako kredituak lurraldeka banatzen baitira, 2021eko ekitaldi ekonomikorako, lan-arloan eskumenak dauzkaten autonomia-erkidegoek kudea ditzaten; kreditu horiek Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko «Konpetentzia Digitalen Plan Nazionala» eta «Lan-merkatua

dinamikoa, erresilientea eta inklusiboa izateko politika publiko berriak» inbertsio-proiektuak gauzatzeko dira.

e) HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko entitateek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren ataletako neurrien mugari eta helburuak zenbateraino betetzen diren jakiteko jarraipena egiteko eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitatea-betearazpenaren jarraipena egiteko.

f) TES/897/2021 Agindua, abuztuaren 19koa, zeinaren bidez Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzaturako kredituak lurraldeka banatzen baitira, 2021eko ekitaldi ekonomikorako, lan-arloan eskumenak dauzkaten autonomia-erkidegoek kudea ditzaten; kreditu horiek Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko «Konpetentzia Digitalen Plan Nazionala» eta «Lan-merkatua dinamikoa, erresilientea eta inklusiboa izateko politika publiko berriak» inbertsio-proiektuak gauzatzeko dira.

g) TES/440/2022 Agindua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzaturako kredituak lurraldeka banatzen baitira, 2022ko ekitaldi ekonomikorako, lan-arloan eskumenak dauzkaten autonomia-erkidegoek kudea ditzaten; kreditu horiek Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko «Konpetentzia Digitalen Plan Nazionala» 19. osagaia eta «Lan-merkatua dinamikoa, erresilientea eta inklusiboa izateko politika publiko berriak» 23. osagaia esparruko inbertsio-proiektuak gauzatzeko dira.

h) Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legearen V. kapitulua.

i) HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana beteazten duten prozeduretako interes-gatazken arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa.

j) TES/629/2023 Agindua, ekainaren 14koa, zeinaren bidez Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzaturako kredituak lurraldeka banatzen baitira, 2023ko ekitaldi ekonomikorako, lan-arloan eskumenak dauzkaten autonomia-erkidegoek kudea ditzaten; kreditu horiek Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko «Konpetentzia Digitalen Plan Nazionala» 19. osagaia eta «Lan-merkatua dinamikoa, erresilientea eta inklusiboa izateko politika publiko berriak» 23. osagaia esparruko inbertsio-proiektuak gauzatzeko dira.

3.– Hauek ere aplikatuko dira:

a) Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2022ko otsailaren 8koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jardueren eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa, zeina argitara eman baitzen Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren martxoaren 1eko 30/2022 Ebazpenaren bidez (2022ko martxoaren 4ko EHAA, 46. zk.).

b) Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2022ko martxoaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien plana onartzen duena; Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariak erabaki hori argitaratzeko emandako apirilaren 6ko 40/2022 Ebazpenaren bidez argitaratu zen plan hori (2022ko apirilaren 13ko EHAA, 74. zk.).

4.– Era berean, entitate onuradunek nahitaez bete beharko dituzte laguntza ematen duen administrazioak eta Estatuko eta Europako gainerako agintari eskudunek xede horretarako ezarritako

arauak, bai eta aipatutako finantzaketa-iturrien arabera laguntza hauen onuradun izateagatik ezarritako betebeharrak ere.

23. artikulua.– Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak izateko arriskua prebenitzea.

Balitzko onuradunak hautatzeko prozesuan edo baldintzak betetzen direla egiaztatzekeo prozesuetan parte hartzen duten pertsonak adierazi behar dute osorik eta inolako erreserbarik gabe ezagutzen eta onartzen dituztela 2022ko martxoaren 29ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bidez onetsitako planaren baldintzak; alegia, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko eskakizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien planaren baldintzak. Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, dirulaguntza emateko eskumena duen organoaren arduradunak, dirulaguntzaren oinarriak edo deialdia idazten dituzten langileek, eskaerak ebaluatzen dituzten aditu eta batzordekideek, baita jarduera horietan Administrazioari laguntza eta aholkularitza ematen dioten entitate pribatuetako pertsona fisiko guztiek ere, iruzurraren aurkako neurrien plana ezagutu eta onartu behar dute.

Urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan adierazitako ondorioetarako, agindu horretan ezarritako prozedurak aplikatuko dira. Gainera, agindu hori betetzeko, dirulaguntzak emateko organo eskudunak eta eskaerak aztertzen dituzten langileek, interes-gatazkarik ez dutela adierazten duen adierazpena sinatu behar dute, agindu horretan bereziki arautua eta III. eranskinari atxikia, eska-bideak aztertzeko eta erabakia hartzeko fasean.

Aurreko apartatuetan aipatutako pertsonak Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) beteko dute (oinarri hauekin batera jaso da, III. eranskin gisa), hala egin behar dela ezartzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko (EB, Euratom) 2018/1046 Erregelamenduaren (Finantza Erregelamendua) 61.3 artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan.

Prozeduraren batean interes-gatazkak eragiteko arriskua dakarren kasuren batean dauden agintari eta langileek ez dute esku hartuko dena delako prozedura horretan. Norbaitek uste badu interes-gatazkaren bat egon daitekeela, hierarkian gorago dagoenari jakinaraziko dio, idatziz; zerbitzu juridikoek txostena egingo dute, eta hartu beharreko erabakia hartuko da. Horrek ez du eragozten HFP/55/2023 Aginduan ezarritako kasu zehatzetarako ezartzen den prozedura berezia betetzea.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, bere kabuz edo Estatuko Administrazioaren Kontu Hartzailtza Nagusiarekin lankidetzan arituz (III. maila), auditoria espezifikoa egin ditzake interes-gatazkak prebenitzeko, atzemateko eta zuzentzeko neurri egokirik ote dagoen ikusteko.

Interes-gatazka bat detektatzen denean, kasu bakoitzean aplikatzekoak diren legezko arauen eta barne-erregelamenduen araberrako neurriak hartuko dira. Era berean, interes-gatazkaren egoeraren berri eman beharko da betiere, gardentasun-printzipioa betetzeko.

I. ERANSKINA

INGURUMENARI KALTE NABARMENIK EZ ERAGITEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA
(DNSH PRINTZIPIOA)

_____ jaunak/andreak
(NAN: _____), _____ ordezkatzuz (IFZ:
_____),

Europar Batasunaren NextGeneration EU funtsak finantzaturako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruko «Administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa» finantzatzeko laguntzen deialdiaren prozedurari dagokionez, adierazten du:

Lehenengoa. Betetzen dituela baldintza hauek:

1.– Egingo diren jarduerak ez diete kalte nabarmenik eragiten ingurumeneko helburu hauei, (EB 2020/852 Erregelamenduaren 17. artikulua arabera (ingurumenaren aldetik jasagarriak diren jardura ekonomikoak sailkatzeko sistema —edo «taxonomia»— ezarriz inbertsio jasagarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzkoa da erregelamendu hori):

Klima-aldaketa arintzea.

Klima-aldaketara egokitzea.

Baliabide hidrikoak eta itsas baliabideak modu jasagarrian erabiltzea eta babestea.

Ekonomia zirkularra, barnean direla hondakinen prebentzioa eta birziklatzea.

Atmosferako, uretako edo lurzoruko kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea.

Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratzea.

2.– Jarduerak bat datoz, hala dagokionean, osagaiaren neurrirako eta azpineurritako ezarrita dauden eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean jasota dauden ezaugarriekin eta baldintzekin.

3.– Proiektuaren barruan egiten diren jarduerak indarrean dagoen eta aplikatu behar den ingurumen-arloko araudia beteko dute.

- 4.– Gauzatzen diren jarduerak ez daude baztertuta planaren finantzaketatik, «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa aplikatzeari buruzko gida teknikoaren arabera, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduari (2021/C58/01), Espainiako Suspertze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Exekuzio Erabakiaren Proposamenari eta hari dagokion eranskinari jarraikiz.
- 5.– Garatutako jarduerak ez daukate zuzeneko ondoriorik ingurumenean, ezta zeharkako ondorio primarioirik ere haien bizi-ziklo osoan zehar. Halakotzat jotzen dira amaitu ondoren, jarduera egin eta gero, agertu ahal direnak.

Bigarrena. Badakiela eta onartzen duela adierazpen honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada, jasotako zenbatekoak eta dagozkien berandutze-interesak itzuli beharko dituela.

_____ (e)n, 20____ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n

Izenpetua:

Kargua:

II. ERANSKINA

INTERES-GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA

Azpiproiektua: C23.I1.P02.S17 Euskal Autonomia Erkidegoa, «Administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa».

Tresna juridikoa: Dirulaguntza.

Espedientea:

Erakunde onuraduna:

IFZ:

Aurretik aipatutako dirulaguntzaren prozeduran inpartzialtasuna bermatze aldera, sinatzaileak, espedientea prestatu, izapidetu eta exekutatzeko prozesuan parte-hartzaile denez, hau adierazten du:

Lehenengoa.

Badakiela:

- 1.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko (EB, Euratom) 2018/1046 Erregelamenduaren (EBko finantza-erregelamendua) 61.3 artikulua —«Interes-gatazkak»— zer dioen, eta interes-gatazka izaten dela: «funtzioak inpartzialki eta objektiboki betetzea kolokan dagoenean familia-arrazoiengatik, afektibitate-arrazoiengatik, kidesun politiko edo nazionalengatik, interes ekonomikoengatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».
- 2.– 31/2022 Legeak (31/2022 Legea, abenduaren 23koa, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrena) hau ezartzen duela ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuan: «Interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematiko eta automatizatu aplikatuko zaie entitate erabakitzaileen, betearazleen eta instrumentalen zerbitzura dauden enplegatu publikoei eta gainerako langileei, baldin eta, banaka edo kide anitzeko organoetako kide gisa, kontratuak adjudikatzeko edo dirulaguntzak emateko deskribatutako prozeduretan parte hartzen badute».

Bigarrena.

Adierazpen hau sinatzean, eta bere esku dagoen informazioa kontuan hartuta, ez dagoela/daudela sartuta ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren laugarren apartatuan aurreikusitako eran interes-gatazkatzat jo daitekeen eta dirulaguntzak emateko prozeduran eragina izan dezakeen egoeraren batean.

Hirugarrena.

Abian den prozeduraren edozein unetan edozein interes-gatazka sortzen bada eta halakoen berri badu(te) Lanbideren zuzendaria jakinaren gainean jarriko du(t)ela, atzeratu gabe.

Laugarrena.

Badaki(t)ela Interes-gatazkarik Ezaren Adierazpen bat faltsua dela frogatzen bada, aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen ondorio diziplinarioei, administratiboei eta judizialei aurre egin beharko diela.

(Data eta sinadura, izen osoa eta NANA).

III. ERANSKINA

IRUZURRAREN AURKAKO POLITIKA EZAGUTZEN DELA ETA HAREKIN BAT EGITEN DELA
AGERTZEN DUEN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

_____ jaunak/andreak (NAN:
_____), _____ ordezkatzuz
(IFZ: _____),

HAU ADIERAZTEN DU:

Lehenengoa.– Iruzurraren aurkako neurrien plan propioa dutela, eta bat datorrela Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan xedatutakoarekin, Kontu Hartzailatza Nagusiek eta Zerbitzu Juridikoek Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoen arloan ematen dituzten gomendioekin, erakunde publikoetako kontrol-organo baliokideekin eta jarraibideekin, bai eta EBk iruzurraren aurka ezartzen duenarekin ere.

Halakorik ezean, bat egiten dute Eusko Jaurlaritzaren *Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko orduan iruzurraren, interes-gatazken, finantzaketa bikoitzaren eta estatu-laguntzen kontra egiteko eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egiteko eskatzen diren baldintzak betetzeko neurrien planarekin*, zeina Gobernu Kontseiluak 2022ko martxoaren 29an onartu baitzuen.

Bigarrena.– Iruzurren aurkako politikaren edukia ezagutzen dutela, baita xede horretarako betebeharrak ere, eta ahalik eta publizitaterik handiena emateko konpromisoa hartzen dutela.

Hirugarrena.– _____ jauna/andrea izendatzen duela iruzurraren aurkako borrokaren arloan Eusko Jaurlaritzarekin hitz egiteko solaskide.

_____ (e)n, 20____ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n

Izenpetua:

Kargua:

IV. ERANSKINA

FINANTZAKETA BIKOITZIK EZ DUELA DIOEN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

_____ jaunak/andreak (NAN: _____),
_____ entitatearen ordezkari den aldetik (IFZ: _____;
zerga-egoitza: _____), eta SEEPetik datozen baliabideen
hartzaile den aldetik «Administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa»
izeneko jardueraren esparruan, hau adierazten du bere erantzukizunpean, gai hauei buruz:

- Ez duela laguntzarik jaso Europar Batasuneko funtsetatik, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamendukoaz bestelakoetatik, eta gero ere ez duela eskatuko aurrekontu nazionaletik edo EBtik hornitzen den beste edozein funtsek finantzatu dezan.

Jarraitu, aurreko baieztapenean laukitxoa markatu ez bada soilik, hau da, proiektuak beste funtsen baten finantzaketa jaso badu, edo etorkizunean jasotzekoa bada, helburu bererako:

- Konpromisoa hartzen duela laguntzak/dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrietan ezarritako mugei lotzeko.
- Konpromisoa hartzen duela gastuen jarraipena egiteko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera finantzaketa bikoitzik ez dagoela ziurtatzeko.
- Proiektuaren finantzaketaren trazabilitatea bermatzen duten mekanismoak eta kudeaketa-ahalmena badaudela.
- Konpromisoa hartzen duela, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Lege Orokorraren 32.5 artikulua arabera, finantzaketa bikoitzik ez dagoela egiaztatzeko justifikazio-agiriak aurkezteko.

Honako datu hauek ematen direla:

DIRULAGUNTZA PUBLIKOAK: Xede berberarekin beste administrazio edo ente publiko batek emandako edo hari eskatutako dirulaguntzak eta bestelako laguntzak			
Administrazioa edo ente publikoa	Xedea	Egoera	Guztira (€)
Eskatutakoa, guztira: _____€		Emandakoa guztira: _____€	

_____ (e)n, 20____(e)ko _____aren _____(e)(a)n

Izenpetua:

Kargua:



Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU



GOBIERNO DE ESPAÑA
Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

V. ERANSKINA

SEEP-EKO JARDUKETAK BETETZEARI DAGOKIONEZ DATUAK LAGATZEKO ETA
TRATATZEKO ADIERAZPENA

_____ jauna/andrea (NAN zk.: _____)
_____ entitatearen ordezkari den aldetik (IFZ: _____; zerga-
egoitza: _____) SEEPeko baliabideen bidez

finantzatutako laguntzen onuradun den heinean, «Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak» deritzon 23. osagaian definitutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduketan garapenean, adierazten du ezagutzen duela aplikatu beharreko araudia, eta, bereziki, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/41 Erregelamenduaren 22. artikulua apartatu hauek:

1.– Bigarren apartatuaren d) letra: «Suspertze- eta erresilientzia-planaren barruan erreformak eta inbertsio-proiektuak egiteko neurriei dagokienez, funtsen erabileraren auditoria eta kontrola egiteko, datu hauen kategoria harmonizatuak biltzea, bilaketak egiteko aukera ematen duen formatu elektronikoa batean, eta datu-base bakarrean:

i) Funtsen azken hartzailearen izena;

iv) Suspertze-, eraldatze eta erresilientzia-planaren esparruan erreformak eta inbertsio-proiektuak egiteko neurrien zerrenda, neurri horien finantzaketa publikoaren zenbateko osoa zehaztuta eta mekanismoaren esparruan ordaindutako funtsen eta Batasuneko beste funts batzuen zenbatekoa adierazita».

2.– Hirugarren apartatua: «Artikulu honen 2. apartatuko d) letran aipatutako datu pertsonalak estatu kideek eta Batzordeak baino ez dituzte tratatuko, aurrekontu-kudeaketaren onespeneraren eta 15. artikulua 2. apartatua eta 23. artikulua 1. apartatua aipatutako akordioak aplikatzeko funtsen erabilerarekin lotutako kontrol-prozeduren auditoriaren ondorioetarako eta auditoriak dirauen bitartean. Batzordearen kudeaketa onartzeko prozeduraren barruan, EBFTren 319. artikuluari jarraituz, Mekanismoak txostenak aurkeztu beharko ditu Finantza Erregelamenduaren 247. artikuluan aipatzen den finantzei eta kontu-emateari buruzko informazio bateratuaren esparruan, eta, zehazki, eta bereizita, kudeaketari eta errendimenduari buruzko urteko txostenean».

Adierazitako esparru juridikoarekin bat, adierazten du onartu egiten duela datuak ematea eta tratatzea artikuluko horietan berariaz aipatzen diren helburuetarako.

_____ (e)n, 20____ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n

Izenpetua:

Kargua:

VI. ERANSKINA

SEEP-EN ZEHARKAKO PRINTZIBIOAK BETETZEKO KONPROMISOA HARTZEKO
ADIERAZPENA

_____ jaunak/andreak (NAN: _____),
_____ entitatearen ordezkari den aldetik (IFZ: _____; zerga-egoitza:
_____), eta SEEPetik datozen
baliabideen hartzaile den aldetik, «Administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko
programa» izeneko jardueraren esparruan, hau aitortzen du bere erantzukizunpean, gai hauei
buruz:

Lehenengoa.– Ordezkatzen duen erakundeak arau juridiko, etiko eta moralak betetzearekin loturiko
estandar zorrotzenen aldeko konpromisoa hartzen duela, horri jarraikiz, iruzurra, ustelkeria eta
interes-gatazkak prebenitzeko eta antzemateko beharrezko neurriak hartzen dituela eta, hala
badagokio, atzemandako ez-betetzeak dagozkien agintariei jakinaraziko dizkiela.

Bigarrena.– SEEParen edukia kontuan hartuta, ordezkatzen duen erakundeak konpromisoa hartzen
duela ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatzeko eta ingurumenean inpaktu negatibo
adierazgarriak saihesteko («DNSH», ingelesezko «do no significant harm») plan horren esparruko
jarduketak exekutatzean.

Hirugarrena.– Ordezkatzen duen entitateak ez duela finantzaketa bikoitzik, eta, haren ustez, ez
dagoela arriskurik estatu-laguntzen araubidearekiko bateraezintasuna izateko.

_____ (e)n, 20____ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n

Izenpetua:

Kargua:

VII. ERANSKINA

KONTROL-ESKUMENAK BERMATZEKO ESKUBIDE ETA IRISPIDEAK EMATEKO
KONPROMISOA HARTZEKO ADIERAZPENA

_____ jaunak/andreak (NAN: _____),
_____ entitatearen ordezkari den aldetik (IFZ: _____;
zerga-egoitza: _____), eta SEEPetik
datozen baliabideen hartzaile den aldetik, «Administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia
izateko programa» izeneko jardueraren esparruan, hau aitortzen du bere erantzukizunpean, gai
hauei buruz:

Izenpetzaileak adierazten du ordezkatzan duen entitateak konpromisoa hartzen duela eskubideak eta
irispideak emateko, hemen aipatzen diren erakundeek beren kontrol-eskumenak baliatzen dituztela
bermatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241
Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko
uztailaren 18ko (EB, Euratom) 2015/1046 Erregelamenduaren («Finantza Erregelamendua») 129.1.
artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira; hauek dira erakunde horiek: Batzordea, Iruzuraren aurkako
Europako Bulegoa, Europako Kontuen Auzitegia, Europako Fiskaltza eta Estatuko agintari eskudunak.

_____ (e)n, 20____ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n

Izenpetua:

Kargua:

VIII. ERANSKINA

SEEP-EKO JARDUKETAK EGITEKO KONPROMISOA HARTZEKO ADIERAZPENA

_____ jaunak/andreak (NAN: _____),
_____ entitatearen ordezkari den aldetik (IFZ: _____),

Europar Batasunaren NextGeneration EU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruko «Administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa» finantzatzeko laguntzen deialdiaren prozedurari dagokionez, adierazten du:

Lehenengoa.– Arau juridiko, etiko eta moralak betetzearekin loturiko estandar zorrotzenen aldeko konpromisoa hartzen duela, eta, horretarako, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko eta atzemateko behar diren neurriak hartzen dituela eta, hala badagokio, atzemandako ez-betetzeak dagozkien agintariei jakinaraziko dizkiela.

Bigarrena.– SEEPen edukia kontuan hartuta, konpromisoa hartzen duela ekonomia zirkularraren printzipioak betetzeko eta ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko («DNSH», «do no significant harm» esapidearen ingelesezko siglak) plan horren esparruko jarduketetan.

Hirugarrena.– Ez duela finantzaketa bikoitzik, eta, haren ustez, ez dagoela arriskurik Estatuko laguntzen araubidearekiko bateraezintasuna izateko.

_____ (e)n, 20____ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n

Izenpetua:

Kargua: